

## UDALBATZARI

## AL AYUNTAMIENTO PLENO

**PP taldearen Arau Proposamena, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga arautzen duen Zerga Ordenantza aldatzea dela eta.**

**Proposición Normativa del Grupo PP relativa a la modificación de la Ordenanza Fiscal reguladora del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica.**

Udaleko PP Taldeko bozeramaileek, 2018ko abuztuaren 7an, ondoko Arau Proposamen hau aurkeztu zuen, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga arautzen duen Zerga Ordenantza dela eta:

La Portavoz del Grupo PP presentó con fecha 7 de agosto de 2018 la siguiente Proposición Normativa, relativa a la Ordenanza Fiscal reguladora del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica:

*“Neurri honen bidez helburua da gutxiago kutsatzen duten ibilgailuak erosten dituzten pertsonen hobari handiagoa ematea eta hobari hori urte gehiagor onartzea, baita ibilgailu elektrikoaren hobaria %90 handitzea ere.*

*“Con esta medida se trata de incrementar la bonificación y el número de años de reconocimiento de la misma para aquellas personas que adquieran vehículos menos contaminantes, así como incrementar la bonificación a los vehículos eléctricos en un 90%.*

Hori dela eta, honako **ARAU PROPOSAMEN** hau proposatzen dugu **TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ZERGA ORDENANTZARI** buruz:

Por todo ello, se propone la siguiente **PROPOSICIÓN NORMATIVA, sobre la ORDENANZA FISCAL REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE IMPUESTO SOBRE VEHÍCULOS DE TRACCIÓN MECÁNICA**

**Hau jartzen duen tokian:**

**Donde dice:**

10. art.- Hobariak

Art.10º.- Bonificaciones

3.- Zerga kuotaren %75eko hobaria izango dute baldintza hauetakoren bat betetzen duten ibilgailuek:

3.- Gozarán de una bonificación del 75 por 100 de la cuota tributaria, los vehículos que cumplan alguna de las condiciones siguientes:

a) Fabrikatik homologatuta dauden motor elektrikoko ibilgailua edo ibilgailu hibridoak izatea (motor elektrikoa-gasolina, elektrikoa-diesela edo elektrikoa-gasa), betiere emisio kutsatzaileak gutxitzen dituzten mota eta modelora egokitutako gailu katalizatzaileak dituztenean.

a) Que se trate de vehículos de motor eléctrico o vehículos híbridos (motor eléctrico-gasolina, eléctrico-diesel o eléctrico-gas), que estén homologados de fábrica, incorporando dispositivos catalizadores, adecuados a su clase y modelo, que minimicen las emisiones contaminantes.

b) Fabrikako homologazioaren arabera, autoko erregai gisa gasa erabiltzen duten eta emisio kutsatzaileak gutxitzen dituzten mota eta modelora egokitutako gailu katalizatzaileak dituen ibilgailua izatea.

b) Que se trate de vehículos que, según su homologación de fábrica utilice el gas como combustible e incorporen dispositivos catalizadores, adecuados a su clase y modelo, que minimicen las emisiones contaminantes.

Hobari hori eskatu beharrekoa da eta, behin onartuta, ibilgailua matrikulatzen den dataren ondorengo hiru ekitaldietan izango du eragina.

Esta bonificación tiene carácter rogado y, una vez reconocida, surtirá efectos durante tres ejercicios a partir de la fecha de matriculación del vehículo.

**Honako hau proposatzen da:**

**Se propone:**

10. art.- Hobariak

Art.10º.- Bonificaciones

**3.1.- Zerga kuotaren %75eko** hobaria izango dute baldintza hauetakoren bat betetzen duten ibilgailuek:

**3.1.- Gozarán de una bonificación del 75 por 100 de la cuota tributaria, los vehículos que cumplan alguna de las condiciones siguientes:**

a) Fabrikatik homologatuta dauden ibilgailu hibridoak izatea (motor elektrikoa-gasolina, elektrikoa-diesela edo elektrikoa-gasa), betiere emisio kutsatzaileak gutxitzen dituzten mota eta modelora egokitutako gailu katalizatzaileak dituztenean.

a) Que se trate de vehículos híbridos (motor eléctrico-gasolina, eléctrico-diesel o eléctrico-gas), que estén homologados de fábrica, incorporando dispositivos catalizadores, adecuados a su clase y modelo, que minimicen las emisiones contaminantes.



b) Fabrikako homologazioaren arabera, autoko erregai gisa gasa erabiltzen duten eta emisio kutsatzaileak gutxitzen dituzten mota eta modelora egokitutako gailu katalizatzaileak dituen ibilgailua izatea.

b) Que se trate de vehículos que, según su homologación de fábrica utilice el gas como combustible e incorporen dispositivos catalizadores, adecuados a su clase y modelo, que minimicen las emisiones contaminantes.

### 3.2. Zerga kuotaren %90eko hoberia izango dute motor elektrikoko ibilgailuek.

### 3.2. Gozarán de una bonificación del 90 por 100 de la cuota tributaria, los vehículos de motor eléctrico.

Hobari hori eskatu beharrekoa da eta, behin onartuta, ibilgailua matrikulatzen den dataren ondorengo **bost** ekitaldietan izango du eragina.

Esta bonificación tiene carácter rogado y, una vez reconocida, surtirá efectos durante **cinco** ejercicios a partir de la fecha de matriculación del vehículo.

Ogasun Batzordeak, 2018ko irailaren 11ko bilkuran, aurreko Arau proposamena, zuzenketarik gabe, aztertu du.

En sesión de 11 de septiembre de 2018, la Comisión de Hacienda ha dictaminado, sin enmiendas, la precedente Proposición Normativa.

Aurreko guztia dela eta, ERABAKI hauek onartzea proposatzen zaio Udalbatzari:

En base a cuanto antecede, se propone al Ayuntamiento Pleno que adopte los siguientes

#### ERABAKIAK:

#### ACUERDOS:

**LEHENA:** Onartzea Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga arautzen duen Zerga Ordenantzaren 10.3 artikulua aldatzea, azalpen zatian adierazitakoaren arabera.

**PRIMERO:** Aprobar la modificación del artículo 10.3 de la Ordenanza Fiscal Reguladora del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica, descrita en la parte expositiva.

**BIGARRENA:** 2019ko urtarrilaren 1az geroztik indarrean izango den erabaki hau 1989ko uztailaren 5eko 11/1.989 Foru Arauko (Gipuzkoako toki ogasunak arautzen dituena) 16. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera izapidetzea; hartara, behin-behineko erabakiak behin betikotzat hartuko dira, baldin erreklamaziorik aurkezten ez bada.

**SEGUNDO:** Tramitar este acuerdo a regir desde el 1 de enero del año 2019, conforme al procedimiento establecido en el art. 16 de la Norma Foral 11/1.989 de 5 de julio, Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, entendiendo que el mismo, de carácter provisional, deviene definitivo si no se presentan reclamaciones.

Donostia, 2018ko irailaren 13a

San Sebastián, 13 de septiembre de 2018

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIA  
EL SECRETARIO GENERAL DE PLENO

JUAN CARLOS ETXEZARRETA VILLALUENGA